

Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZAren gehigarria. 2021eko uztaila.

HITZA

Turismoa

Lea-Artibai,
Mutriku eta
Busturialdean

Ezagutu eta gozatu!



CONSERVAS
YURRITA
— 1867 —
GASTRONOMIKA

ZUZENKO ETA ONLINE SALMENTA

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALAK

© *Kantauriko Antxoa eta Bokarta, Hegaluzea, bestelako espezialitateak* ©



ZUZENKO SALMENTA LANTEGIAN

Udako ordutegia:

Astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00 eta 17:00-19:00

Larunbata: 10:00-13:00

Nola iritsi Mutrikutik/Ondarroatik:

Ondarroaranzko errepidea z/g (Gi-638, 58km).

Yurrita Group enpresaren aurrean, errepidearen
beste aldean. Google Mapsen Casa Mauleon Etxea
edo Yurrita Group jarri.

GAINERA!!
Online Salmenta
etxera bidaliko dizugu
www.tiendayurrita.com



ONGI ETORRI GURERA!



Aurkibidea

YURRITA (Mutriku)	2
BERRIATUA	4
MARKINA-XEMEIN	5
ETXEARRIA	6
ZIORTZA-BOLIBAR	7
LEA IBARRA	8
MUNITIBAR	9
AULESTI	10
LEAKTIBAI (Mendexa)	11
MENDEXA ABENTURA PARK	12
ISPASTER	13
LEKEITIO	14
MUTRIKU	15
ONDARROA	16-17
OLATU URPEKARITZA Z. (Bermeo) T-KIMUA (Bermeo)	18
FORUA	19
EKOBIIDEAK (Leioa)	20
MURUETA	21
EUSKAL SOUVENIRS (Gernika-Lumo)	22
AUKA BIDAIAK (Gernika-Lumo)	23
GAUTEGIZ ARTEAGA	24
BASONDO (Kortezubi)	25
IBARRANGELU	26
ELANTXOBEKO ZALDIXEK	27
OGOÑOPE SURF ESKOLA (Laga, Ibarrangelu) ARROLAGUNEA (Arratzu)	28
EA	29
ARRATZU	30
NABARNIZ	31
UR URDAIBAI (Laida, Ibarrangelu)	32

HITZA

Lea-Artibai, Mutriku eta Busturialdeko HITZAren
TURISMO GIDA • 2021eko uda

Argitaratzailea: Lea-Artibaialdeko Hedabideak, S.L.
Lege Gordailua: BI-2906-03. **ISSN:** 2173-7118.
Kudeatzailea: Idurre Arrazola Astoreka.
Zuzendaria: Larraitz Ibaibarriaga Etxaburu.
Zuzendariordeak: Asier Alkorta Bengoetxea eta Oihana Cabello Elorriaga.
Testuak: Asier Alkorta, Nerea Bedialauneta, Lore Bengoetxea, Oihana Cabello, Larraitz Ibaibarriaga, Ane Maruri, Aintzina Monasterio, Eider Mugartegi eta Olaia Zabalondo.
Publizitatea: Maribi Fernandez Zabala eta Maite Laka Itxaso.
 publibusturia@hitza.eus • 647 31 97 77
 publilea@hitza.eus • 600 57 14 26

EGOITZAK:

Bermeo. Atalde 17, atzealdea, 48370. Tel.: 94-618 72 99.
Gernika-Lumo. Elbira Iturri kalea, z/g. 48300. Tel. 94-627 10 85.
Markina-Xemein. Arretxinaga, 1 (behea). 48270. Tel. 94-684 44 36.
Mutriku. Barrenkale, 12 (behea), 20830. Tel. 943-60 34 68.



HITZAk Bai Euskarari



JARRAI GAITZAZU SAREAN ERE:

www.busturialdea.hitza.eus

www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus





Aisialdirako aukera ugari eskaintzen ditu Berriatuak, gustu, plan eta adin guztiei begira; erdigunea abiapuntu, frontoia bisitatu edo Errege Bidea egin daiteke, beste ibilbide batzuen artean.



Berriatua eta Ondarroa arteko Errege Bidea.

Gozatzeko gogoa neurri

Ez dago era bakarra aisialdiaz gozatzeko, eta neurria ez da muga herri baten aukera guztiei zukua ateratzeko. Horren adibide garbia da Berriatua, urtetik urtera aisialdirako txoko ederra dela erakusten duen plaza.

Herri erdian, geldialdi bi egin beharrean dago bisitaria, alde batetik, umeentzako parkean, txikienek atsegin bete hartuko baitute bertan eta, beste alde batetik, frontoian, lehengo eta oraingo zesta-puntako jokalarien topagune ikoniko eta belauldialdi berrientzako erreferentzien sehaska. Merezki du bertan sartu-irtena egitea, akaso pilotariak entsegatzen ikusteko modua ere suertatu daiteke eta.

Errege Bidea

Erdigunea abiapuntu, oinez ibili eta inguruen ederraz jabetzeko aukera paregabea dago, Errege Bidea jarraituta. Mutrikuko Saturrarán hondartzaraino ailegatu daiteke hango arrastoari segi eginez gero, erraz-



«Frontoia lehengo eta oraingo zesta-puntako jokalarien topagune ikoniko eta erreferentzien sehaska da»

erraz, ordu eta erdian, eta bidean, natur paisaia eta arkitektura eraikin erakargarriak izango ditu bidelagun bisitariak, esate baterako, Aranzibia dorrea.

Mendi buelta

Dena dela, proposamen bat baino gehiago dago Berriatuan gorputz

jarduerarako, mendi auzoetan buelta emanaz, kasu; adibidez, Madalenan. Kondairak dio ermitako putzuan zapi bat busti, adar batean eskegi eta ostean azal zaurituan igurtziz gero, sendatu egiten dela.

Atxurrako kobak


Asterrikara igo eta itsasoa ikuskatzea edo Milloira joatea ere badago. Azken auzo horretara doanak jakin beza Atxurra kobetan dagoela European lantaz eginiko marka gehien dituen bisontea.

Borobiltzeko, Berriatuan jatetxeak (Arriola, Mendibarrren frontoia, Urepel eta Zentra-la) eta lo egiteko lekuak daude (Orubixe landa etxea, Urkixa Bekoa nekazal etxea eta Berritxuko Ostatua).



**BERRIATUA
ELIZATEKO
UDALA**

Helbidea: Herriko Plaza, 1
Telefona: 94-613 70 30
Faxa: 94-613 70 27
Posta elektronikoa:
udala@berriatua.org
Webgunea: www.berriatua.org



ONDAREAREN IBILBIDEA

- QR-1 eta 2. Goiko Portala eta Iturria
- QR-3. Karmengo komentua eta eliza
- QR-4, 5 eta 6. Hirigune historikoa, Zehar kalea eta Guen kalea
- QR-7. Iruretakoa Portala
- QR-8. Frontoia
- QR-9. Bidarte Dorrea, Parkea eta Santa Kurutz ermita
- QR-10. Uragin kulturunea
- QR-11. Patrokua Jauregia
- QR-12. Juan Antonio Mogelen omenezko monumentua
- QR-13. Xemeingo eliza
- QR-14. Xemeingo kanposantua
- QR-15. Arretxinagako San Miguel ermita
- QR-16. Barroeta dorrea eta ermita
- QR-17. Kartzeletxea
- QR-18. Udal arrandegia eta iturria
- QR-19. Ugarte dorrea
- QR-20. Sagastiguren

Etorri eta bizi Markina-Xemein

Milaka sentsazio dituzu zain Markina-Xemeinen.

Ezagutu bere xarma eta gozatu bere giro paregabea, zure erara,
Ondarearen Ibilbidea eginez, soilik mugikorraren laguntzagaz.

QR-9. Bidarte Dorreko Parkea

Markina-Xemeinek aire libreko aisialdirako gune berri bat zabaldu du. 12.200 metro koadroko ingurune naturala, erabiltzaileen lasaitasunerako pentsatutako parke batean. Espazioa bi gunetan banatuta dago. Alde batetik, herriarrentzako parke irekia, eta, bestetik, baso zabal bat, zuhaitz ugari betea, batez ere haritzek eta pagoz. Parkeak 09:00etan zabalitzen ditu ateak egunero [abuztuan itxita egongo da].

markina-xemein
turismoa

MARKINA-XEMEINGO UDALA

Webgunea: www.markinaxemeinturismoa.com

Etxebarria aisialdirako alternatiba erakargarria bilakatu da urte gutxian. Skate parkearekin eta ur parkearekin, familian goatzeko eskaintza proposatzen du, aktibitatea zein atsedena, biak aukera-aukeran, nahiaren arabera.

Kalamua mendiaren oinean eta Urko ibaiak bustirik, Etxebarriak naturarekin harreman estua mantendu du menderik mende, eta lotura horri eutsi ezezik, bultzatu ere egin du, berriki, aisialdirako eskaintzen bidez.

Skate parkea

Martxan da Etxebarriko skate parkea Ibaun parkean. Arrapalak baino askoz gehiago da, oster. Izan ere, elementu asko ditu 500 metro koadroko azaleran, besteak beste, barandak, lauki luzeak eta lurra bera, skatean zein bizikletan, scooterrean edota patinekin ibiltzeko.

Udalak naturari erroturiko skate parkea egin nahi izan du. Elementuak ez daude lerrotatuta, eta hala nahi denean, eraldatu egin daitezke, parkeari mugimendua eta aldatzeko aukera eskainiz. «Skateparkean ez daude neurri bereko bi linea. Malevich laukia izeneko diseinua dauka. Horrek esan nahi du ez dela elementu estatikoa, mugimenduan dagoena baino», gogorarazi du Jesus Iriondo alkatea.

Ur parkea

Herritarren eskariari erantzunez egin zuten skate parkea, eta horixe bera izan da ur parkea egiteko arrazoia ere. Skate parketik hurbil, era askotako txorrokak, berdegunea eta mahaia jarri dituzte, 100 metro koadroko eremuan. Splash izena jarri diote, «zipritin», ingelesez. Berba aproposa bertan dagoena irudikatzeko, era askotako txurruak jarri baitituzte. Dena dela, xahuketa ekidin dute. Izan ere, ur jolasak pizteko botoia sakatu beharko da, inor ez dagoenean urik alperrik ez galtzeko, eta botoia sakatu ostean denbora zehatz batez



Ur parkea.

Plazer iturri

Skate parkearekin eta ur parkearekin, Etxebarriak aisialdirako aukerak zabaltu ditu oraintsu, eta herritarrei ez ezik, bisitariei ere inguru ederrarekin goatzeko aukera paregabea eskaini die.

baino ez da isuriko. Skate parkea urte gutxian egongo da zabalik. Aldiz, ur parkea udan baino ez, 10:00etatik 20:00etara. Eskaintza osatzeko, frontoia ere badauka Etxebarriak, pilotaren modalitate guztiak praktikatzeko.

Horrez gain, Antsotegi hotel eta jatetxeak hainbat ekintza prestatzen ditu umeentzat, tailerrak, mendi ibilbideak, eskalada, surf eta ginkanak, beste gauza askoren artean.

NON JAN ETA NON LO

Antsotegi hotela eta jatetxea

94-616 91 00

Txomin Ostata

94-616 82 22

Iru Bide taberna

94-616 65 50

Olaia jatetxea

94-616 63 94

Otsolo taberna

94-616 96 90



**ETXEBARRIKO
UDALA**

Helbidea: Peñanekua plaza, 1
Telefonoa: 94-616 64 32/ 94 616 7409
Posta elektronikoa:
ghernando.etxebarria@bizkaia.org
Webgunea: www.etxebarria.biz



Antzina, produktu preziatua zen karea baserrietan, zerbitzu handia ematen zuen eta; Ziortza-Bolibarren, karobi asko daude, garai haien testigu isil.

Bizimodu baten lekukotza

Euskal Herrian, XVIII. mendearen hasieran karea ugari zen nekazaritzan, konturatu zirelako lurra berotu egiten zuela. Hain zuzen ere, Ziortza-Bolibarren karobi asko ikusi daitezke, lehengo bizimoldearen erakusle.

Herriaren hondare dira karobiak, eta zerrenda ikusita jabetuko da bisitaria zein esanguratsu ziren garai batean Ziortza-Bolibarren ere: Muntxei, Munarrixa eta Gontzugarai dira aipagarri, baina badaude gehiago, Arta, Zeinka-Zearregi, Iruzubieta eta Goierria Ziortza auzoetan.

Gauza askotarako erabiltzen zen karea baserrietan, hala nola, hor-

mak zuritzeko, lurra garbitzeko, ikuiluak eta abereen zauriak desinfektatzeko, errautsak kontserbatzeko, soroak ongarritzeko eta kare-morteroa egiteko.

Baserri inguruetan

Lehengaiak non, handik hurre erakitzen zituzten karobiak, baserri inguruetan. Hainbat egun behar iza-

ten ziren kareharria erretzeko, eta beti auzolanean jarduten zuten, bi edo hiru pertsonako taldeetan.

XX. mendearen erdialdean, ongari kimikoen eta porlanaren industri ekoizpenarekin lehiatu ezinik, baserrietan lurra lantzeari utzi eta abeltzaintza nagusitzearekin batera, karea egiteari utzi zioten baserritarrek. Orduan, karobiak itzali egin ziren.



**ZIORTZA-
BOLIBARKO
UDALA**

Helbidea: Domingo Ugartetxea, 3.
Telefona: 94-627 57 27.

Posta elektronikoa:
udala@ziortza-bolibar.com

Webgunea: www.ziortza-bolibar.com

Ibilbide baten aukerak

Lea ibilbideak Lea Ibarra bailara osoa zeharkatzen duen 23 kilometroko bidea eskaintzen du. Mugikorrarekin egiteko ihes jokoa ere proposatzen du ibilbideak.



Lea ibilbideak ondareak bisitatzeko, kirola egiteko eta naturaz gozatzeko aukera eskaintzen du.

Lea ibaiaren ia ibilgu osoa hartzen du Lea Ibarrean kokatzen den eta 23 kilometro luze dituen Lea ibilbideak. Aparteko zailtasunik gabe, bakarka, bikotean zein familian egitekoa da, eta Lea Ibarrean kokatuta dauden herri guztiak zeharkatzen ditu: Munitibar, Aulesti, Gizaburuaga, Amoro eta Mendexa.

Txorien eta uraren soinuak lagunduta, kirola eginez naturaz gozatu eta ondare kulturalak ezagutzeko aukera ematen du ibilbideak. Gainera, ibilbidean zehar aurkitu daitezkeen ondareei buruzko informazioa errazteko, bidean *totem* moduko elementuak aurkituko ditu bisitariak.

Mendexan, itsasoa albo batean dela, Isuntzako zubia aurkituko du ibiltariak pauso bat eman baino lehenago. Leku berean, erreka errotak ordezkatu ahal izateko 1555ean eraikitako Marierrota ma-

rea errota dago; marearen gorabeherekin errota mugitzeko ur-jauzia sorrarazten zen bertan.

Aurrera egin eta Adan de Yarza leinukoek 1716an eraiki zuten Zubietta jauregia ikusiko du bisitariak. Eta hortik aurrera ere altxorak han eta hemen aurkituko ditu: 1632. urtean eraikitako ospitale zaharra, Errege Bidearen jatorrizko galtzada, XVIII. Mendeko Lariz Oleta errota-okindegia, Angiz burdinola errota... Eta hori guztia pagadi, gaztainadi eta presaz beteriko gunean dago kokatuta. Alegia, naturaren paradisuan. Hain da paradisua ze, bisoi europarraren bizileku ere badela. Horrez gain, Ardoa eta Arrainaren ibil-

bideak eta Done Jakue bideak ere zeharkatu egiten dute.

Skape Lea Artibai

Aurten, gainera, Skape Lea Artibai mugikorrarekin egiteko ihes jokoa eskaintzen du ibilbideak; familiako kide guztiek parte har dezakete. Skape Lea Artibai Munitibarren hasten da, Bengola Natur Energia Interpretazio Zentroan, eta Mendexako Mareen errotaraino heltzen da (ibilbide osoa hartzen du). Jolasak, hain zuzen, uda honetan bertoko inguruak modu berezi eta alaigarrian ezagutzeko aukera ematen du. Informazio gehiagorako, sartu www.leaartibai-turismo.com webgunean.



Helbidea: Elexalde 1, Gizaburuaga
Telefona: 94-684 29 82

Faxa: 94-684 44 21

Posta elektronikoa: leaibarra@bizkaia.org

Webgunea: www.leaibarra.com

Natura
Kirola
Aisialdia
Gastronomia
Munitibar.

Informazio guztia



labur.eus/munitibar-turismoa

Mendi-ibilbideak

Oiz , Motrollu, Kanpone, Lea ibilbidea...

Lasai-guneak

Bengola, Mintegi osteko zelaia...

Zerbitzuak

Tabernak, jatetxeak, denda...



MUNITIBAR
ARBATZEGI
GERRIKAITZ
UDALA



Lehenengo berba
euskeraz!

Antzerkilari eta antzezleen topaleku bizia

Urteko kultur ekintza berezie-
na Artedrama astea da. Norma-
lean Pazko Astean izaten den
arren, aurtien irailaren 20etik
25era egingo da. Astebetean,
Aulesti antzerkiaren etxea
izango da, euskal antzerkilarien
eta antzezleen topagune. Bi ar-
datz dauzka

ekimenak:
antzerki
ikastaroa
eta an-
tzerki
saioa,
gauero.



Aisureta, Mikel Lertxundi eskultorearen sormen lana.

Naturarekin lotzeko zubi

Mendi artean gorderik, inguruarekin elkartzeko aukera bat baino gehiago ematen ditu Aulestik.

Kalean giro bizia egoten da Aulestin. Horren adierazle nagusienetakoa plaza da, herriaren erdigune eta ume zein nagusien bilgune. Baina kaletik haratago, naturarekin zuzeneko harremana dauka.

Izan ere, asko asko aldendu barik, Iruzubi lasaigunea dago, leku lasaia, ederra, zelai berdez osatua. Lea errearen alboan, egun pasa egiteko leku aparta da, bainua hartu, bazkaldu zein jolasteko leku apropos-aproposa, ume zein nagusientzat erakargarri.

Mendia

Herri erditik bereizita, ibilbideak egin daitezke Urregarai, Bedartzandi edo Ilunzar mendietara, zein baino zein politagoa. Hiru tontor horietatik ikuspegi ezin hobeez gozatu daiteke. Gainera, Urregarai zelaian, Atxagarai aterpetxea dago, nahi duten guztientzat erabilgarri.

Udalak kudeatzen du, eta bertara deitu behar da lekua gordetzeko.

Horrez gain, Aulestira datozenek eskualdeko ibilbide zoragarri bat egiteko aukera ere izango dute: Lea Ibilbidea. Munitibarren hasi



«Urregarai, Bedartzandi edo Ilunzar mendietara ibilbideak egin daitezke, eta tontorretatik, ikuspegi ezin hobeez gozatu»



eta Mendexan bukatzen da, eta errearen ondotik, naturaz lotu eta eguneroko burukominez ahazteko leku ezin hobea da. Herritik igarotzen da kilometro luzez, eta nahi beste tokitatik sartu daiteke bertara. Zailtasun gutxi dauka, lasai-lasai egin daiteke oinez zein bizikletaz, eta egiten dutenek errepikatu egin nahi izaten dute.

Aisureta

Hantxe, ibilbidearen ondoan, Zetokiztik parke-
ra bitartean aurkituko du ibiltariak Aisureta gunea, arte eta naturaren bilgune. Mikel Lertxundi eskultoreak egindako arte lanak daude, airea, sua eta ura aktore nagusi dituen, eta naturaren eta artearen arteko oreka eta lotura bilatzen dituen.



AULESTIKO UDALA

Helbidea: Donibane enparantza, 1
Telefonoa: 94-627 90 06
Posta elektronikoa:
idazkaria@aulesti.eus
Webgunea: www.aulesti.eus

TURISMO AKTIBOA ETA ABENTURA-KIROLA EUSKADIN

Aprobetxatu Lea-Artibai eskualdeak eta Karraspiok (Mendexa) eskaintzen dituzten aukera zabalak entretenimendu jasangarrirako. Praktika itzazu abentura-kirolak Bizkaian zehar. Zatoz paisaia ikaragarriez goatzera. Aukeratu adin eta maila desberdinetarako ekintzen artean. Lagunekin, bikotekidearekin edo familian, ordu batzuetarako zein hainbat egunetarako.



2008an, surfzale amorratu eta uretako kirol ekintzen espezialista batek Dzingua surf denda sortu zuen. Handik bi urtera, uretako kirolean bereizten den talde batek Dzingua kirol ekintzak elkarrekin sortu zuen. Era horretara, haien pasioa bizitzeko modu bat bilakatu zen.

Ezin daiteke alde batera utzi Dzingua kirol ekintzaren eta Antsotegi hotelaren arteko lankidetzak, biok batera urteak baitaramatzagu lanean pack desberdinak eskainiz, besteak beste, ostatua eta hainbat aktibitate. 2014an Antsotegi hoteletik Sustraiak Natura sortu zen, mendiarekin erlazio estua daukan enpresa berria eta Antsotegi familiak daukan pasioa transmitituz.

Hainbat urte daramatzagu elkarlanean, eta horren eraginez indarrak batu eta Leaktibai sortu dugu, alde batetik itsasoan eta mendian daukagun esperientzia, eta bestetik kultura eta tradizioa eta batez ere naturarekiko pasioa uztartuz.

Karraspio hondartza, Mendexa
leaktibai@gmail.com

688 82 67 97



MENDEXAKO UDALA

Etorri ezagutzera



ZIRKUITUAK

Yoko zirkuitua.

- Erreferentzizko adina: 4-8 urte.
- Altuera: 1,10-1,40 metro artean.
- Zirkuitua: 15 erronka [3 tirolina]

Zirkuitu laranja.

- Erreferentzizko adina: 6 urtetik aurrera [10 urtetik beherakoak lagunduta].
- Altuera: gutxienez 1,20 metro.
- Zirkuitua: 5 erronka [2 tirolina]

Demo zirkuitua.

- Erreferentzizko adina: 9 urtetik aurrera [14tik beherakoak lagunduta].
- Altuera: gutxienez 1,30 metro.
- Zirkuitua: 5 erronka [2 tirolina]

Zirkuitu berdea.

- Erreferentzizko adina: 9 urte [14 urtetik beherakoak lagunduta] -
- Altuera: gutxienez 1,40 metro.
- Zirkuitua: 15 erronka [5 tirolina]

Zirkuitu urdina.

- Erreferentzizko adina: 12 urte [14 urtetik beherakoak lagunduta].
- Altuera: gutxienez 1,50 metro.
- Zirkuitua: 16 erronka [4 tirolina]

Zirkuitu gorria.

- Erreferentzizko adina: 15 urte [16 urtetik beherakoak lagunduta].
- Altuera: gutxienez 1,50 metro.
- Zirkuitua: 21 erronka [boost tirolina]

ESKAINITZA BEREZIAK

Familian. 4 urtetik aurrerako umeak dituzten familientzako eskaintza. Eskaintza berezia 13 urtera arte eta hiru lagunetik gorako familientzat, guztientzako prezio berarekin.

Urtebetetze jaiek egiteko aukera.

Ume, gazte zein nagusien urtebetetze egun bereziak ospatzeko eskaintza.

Opari txartelak. Naturagaz gozatzeko opari originala.

Ezkondurak aurreko agur jaiak. Agur jai originalak naturan barneratuta.

Gazte taldeak. Gazte taldeentzako abentura, udaleku edota kanpaldientzat osagarri proposa.

Ikasle taldeak. Formakuntza eta aisialdia eskutik: abentura naturan, tirolinak, tibeteko zubiak, rokodromoak...

KONTAKTUA



Helbidea:

Leagi auzoa (Mendexa)

Telefono zenbakia: **688 85 62 83**

Posta elektronikoa:

info@mendexapark.com

Webgunea:

www.mendexapark.com

Abenturarik zirraragarriena

Zuzenean naturarekin lotutako eskaintza zabala dauka Mendexak. Bizkaiko ekialdean kokatuta, mendiaz zein itsasoaz gozatzeko aukera ematen du.

Herrigunea (Zelaia auzoa) mendi tontorrean dago; Likoa, Leagi eta Iturreta auzoetan baserri eder ugari aurki daitezke. Handik gertu, Lea ibaiaren albo batean, Karraspio hondartza dago; lasai egoteko zein itsasoko jarduerak egiteko leku aproposa; surfa, esaterako.

Itsasotik aldentuta, abentura bete-betean bizitzeko natur ingurunea dago: Mendexa Abentura Park. Abenturazaleek 70 erronkatik gora egin ditzakete leku ireki eta guztiz seguruan. Aurten, **Zirkuitu laranja** ireki dute, taldeak banatuago atrenditzeko eta txikienek aukera berri bat izan dezaten.

Parkea adin guztiei zuzenduta dago, eta mahaia eta berdegune zabalak ditu, lagun zein familia artean lasai egoteko.



**MENDEXAKO
UDALA**

Helbidea: Zelaia auzoa, 1

Telefonoa: 94-684 21 06

Webgunea: www.mendexa.net

Harremanetarako:

idazkaritza.mendexa@bizkaia.org



Ogella hondartza.

*Ispasterko udalerriaren
ondare arkitektonikoari
erreparatuz gero, 500 urte
atzeragoko bizimodua
irudika daiteke, oinez
nahiz bizikletan egiteko
prestatutako bideetan*

Mendia eta itsasoa alboz albo, merezi du Ispaster bisitatzeak. Bizkaiko kostaldeko paisaiaren adierazgarriarik onena, Lekeitio, Mendexa, Amoroto, Gizaburuaga, Nabarniz, Ereño eta Earekin mugan, auzoguneetan baserri ederrak gorde ditu, nekazaritza eta abeltzaintza sektoreak izan duen garrantziaren erakusle.

Herriko eraikin esanguratsuenak ezagutzeko, oinez nahiz bizikletan, inolako zailtasunik barik egiteko hainbat ibilbide prestatu ditu Ispasterko Udalak. Aukeran, 45 minutu edo 3 orduren buruan egitekoak. Elealdeko plazan dauden argibideei jarraituta, herriko ondare arkitektonikoa hurre-hurretik ezagutu eta Otoio mendiaren azpian babestutako natur baliabideez gozatzeko aukera izango du Ispasterreko doanak.

Horrez gain, Ispasterrek altxor ezkutu bat gordetzen du: Ogella hondartza, kostaldea eta mendia elkar-tzen diren toki aproposena gure paisaiarekin bat egiteko. Adituek diote Ogellan dagoela surfa egiteko eskumako olaturik onena. Bestalde, hondartzak urtero harritzen gaitu, harea edo harkaitz gehiagorekin, txikienek ondo pasa dezaten. Duda barik, me-

rezi da oinez hurreratzea bertara eta egun pasa egin bere atsedenean.

Elealden, herriko erdigunean, San Miguel parrokia ezagutzea ezin bestekoa da. XVI. mendekoarekin errenazentista horren sarrera nagusia herriko plazara begira jarrita dago eta barruko aldean, erretaula barroko handi bat dago, baita estilo erromanista duen beste bat ere. Elizaren albo batean, *Villa Dolores* txaleta dago, Indianoen etxea izandakoa. Bere dorre biribilarekin puntu exotikoa jartzen dio paisaiari.

Elealde inguruan jarraituz, herriko udaletxeari erreparatzeak ere merezi du. Landugabeko harriz osatutako eraikina da herritarren etxea. 1817. urtean eraiki zuten, ospitale militarra izan zedin. Balkoian oraindik bere historiaren zati batek idatzita jarraitzen du. Honela dio: *Casa Consistorial de Yspaster destinada para hospital militar de Voluntarios de Vizcaya en 1813. Quemada por esta causa por los franceses reedificada por dicho Yspaster en 1817.*

Erdigunetik aparte, ezin aipatu gabe laga herria izaeraz jutzen duten garaiko baserri multzoa. Ispasterko baserrien auzoak laborantzako etxeren elkarrekin dira: Solarte, Kortazar, Barainka, Mendasona, Goiherri, Zatika, Artika, Kurtziaga eta Gardata auzoetan lehenengo sektoreak landuz bizirauten zuten garaietan koka-

tzeko aukera izango du bisitariak, besteak beste, Kaltzada, Erkiaga, Aixpe aurreko baserriak ikustean.

Lasaitasuna herritik gertu

Elealdetik hurbil, Santiago basiliza gotikoaren inguruneak lasaitasuna eta paisaia zoragarriaz gozatzeko aukera ezin hobea eskaintzen ditu, egokitutako atsedenean.

Baselizatik baselizara joanda, leku ikusgarrian dago San Martingo basiliza ere, Soluan auzoan. Barneko altzari eta santuaren irudia 1984an gertatutako sute batean galdu ziren arren, ikusteko modukoa da. Izan ere, Ispasterko baserri auzoen ikusgarritasunaz gozatzeaz gainera, udalak eskaintzen duen zerbitzuari esker, baselizaren alboan dagoen txokoa den erabilerarako eskuragarri dago. Aitzakiarik ez dago, beraz, egun baterako edo batzuetarako Ispasterreko etortzeko. San Martinetik gertu Aixeder errota dago. Gaur egun errota izaera galduta duen arren, eraikina oso ondo kontserbatuta dago, eta ez dauka parekorik inguruan.

Azkenik, bai oinez bai bizikletan, herriko ibilbideak jarraituz, atzerantz bota dugu gure begirada, eta baita aurrera ere, gure ohiturak eta bizimodua mantentzea gure oraingoan eta etorkizuneko betebeharretan baitago.



**ISPASTERKO
UDALA**

Helbidea: Elealde auzoa, 9-1. solairua
Telefona: 94-684 40 25
Faxa: 94-624 34 70
Posta elektronikoa:
udala@ispaster.net
Webgunea: www.ispaster.net

Ikusten dena baino askoz gehiago

Zentzu guztiekin gozatzekoa da Lekeitio, eskaintzaz oparo eta herri izaeraz harro.

Apartekoa da Lekeitio, azal eta mami, eta bazterrik bazter ezagutzeak merezi du, sustraie-tara joaz. Lekeitio bisi-tatzen duenak jende bizia aurkituko du, izaerari eutsi eta sustraiez harro hitz egiten duen herria.

Hiribildu noble eta leiala izendapena ere baduena, gainera, orain Lekeitio Route aplikazioaren bidez ezagutzeko aukera dago. Bidean, bata bestearen atzetik, txoko leku esanguratsuenak bistaritzen dira, hala nola, Andra Mari eliza ikusgarria, Santo Domingo komentua, Oxangoiti, Arostegi eta Abaroa jauregiak, Turpin dorrea eta Dorre Zaharra, arrantzaleen kofradia, Arranegiko plaza eta udaletxea. Pausorik pauso, portua eta alde zaharra, hitz bitan herria bera, bereago sentituko ditu bisitariak.

Lumentza mendia

Asko nekatu barik baina jarduera fisiko pixka bat egin nahi duenarentzat, hor dago Lumentza mendia

ere. Puntatik, ikusgarri agertuko zaio Lekeitio, parez pare dituela Santa Katalina-ko ibilbidea,

Isuntza

hondar-

tza eta

Garraitz irla.

Eta behin mendi-otera amaituta, plai-ko bainu indargarriak atsegin betea emango dio.

Hor ez da amaitzen herriaren xarma, ordea. Oraindik ere asko geldituko zaio deskubritze-

ko. Izan ere, behin hemen egonik, Marierrotara, itsasargira eta Garraitz irlara joan beharra dago, ezinbestean.

Marierrota

Marierrota Biodibertsitatearen interpretazio zentroan, Lea Ibilbidearen inguruko azalpenak ematen dira, GR38 edo arrainaren ibilbidea izenarekin eza-gutzen den bidea. 1555ean eraikita, lehorteetan ibaietako erroten orde-

erabiltzen zen, eta oraindik harri laneko dikeak badirau. Uztailean eta abuztuan zabaltzen da, zapatu-domekan, 10:00etatik 14:00etara. Hori bai: kontuan hartu asko jota bederatz lagunek taldeak hartzen dituztela.

Santa Katalina itsasargia

Hego Euskal Herrian lehen itsasargi bisi-tagarria da. Itsasargia, talaiarekin batera, nabigazioaren teknologia interpretatzeko zentroa da, eta aukera ematen du nabigazioaren oinarriak ezagutzeko eta marinelen sentsazioa

barneratzeko, azken batean lehorrekin lotzen zituen itsasargiaren argiaren esanahi osoaz jabetzeko. Hauek dira uztaileko eta abuztu-ko bisiten ordutegiak: asteazkenetik larunbatera, 11:30ean, 13:00etan, 16:30ean eta 18:00etan, eta igandee-tan goizez, 11:30ean eta 13:00etan. Kasu horretan ere edukiera mugatuta dago, zortzi pertsonara.

Garraitz

Badia erdian, Garraitz uhartea edo San Nikolas dago. Balio natural eta kultural aberatsekoa, euskal kostaldearen gune esanguratsuena-takoa da. Hainbat oku-patzailek kolonizatu zuten, eta haien legatua aztertzen dihardute ikerlariek.

Uhartea lehorrekin konektatuta dago dike baten bidez, portua Lea Ibaiaren jalkinetatik babesteko eraiki zuten azpiegitura adierazgarria.



lekeitioturismo.eus

Facebook @lekeitio.turismo Twitter @LekeitioTurismo Instagram @lekeitioturismo.eus Phone 94 684 40 17 Email turismo@lekeitio.eus Independence enparantza

lekeitio udala

Bidaia zirrargarria, denbora geologikoan atzera eginez

Planen bila dabiltzanei milioika urte atzera egin eta lurraren historian barrena aurkikuntza bidaia erakargarri bat egiteko aukera eskaintzen die Mutriku.

Geoparkearen eta udalaren atarietan, eskuragai

Nautilus, Flyscheko Fosilak bisita gidatua egin nahi dutenek Euskal Kostaldeko Geoparkearen webgunean (www.geoparkea.eus) egin ditzakete erreserbak. Udarako asko indartzen da eskaintza, eta nahi dutenek ia egunero edukiko dute bisita hori egiteko aukera. Nautilus, Mutrikuko Ikasgune Geologikoaren ordutegiak ikusteko, aldiz, bisitatu udal webgunea: www.mutriku.eus



Euskal Kostaldeko Geoparkearen bihotzean murgiltzeko gonbidapena egiteaz batera, herri honen iragana ezagutu eta lurraren historia sekretuaz bustitzeko eta liluratzeko hainbat aukera eskaintzen ditu Mutriku. Harrituta eta errepikatzeko gogoz utziko zaitu.

Nautilus Ikasgune Geologikoa bisitatuko dugu lehenengo. Mutrikuko museo eder hau larunbat eta igandetan dago irekita orain, eta uztailean eta abuztuan, berri, astearretik igandera irekiko da.

Geologiari lotuta, literatura zientifikoa munduan ezagutzen den amonite erraldoien bilduma handienetarikoa bat ikusi daiteke bertan. Bildumak oso berezi egiten duen beste balio erantsi bat ere badu: fosilak herriko zazpi hondartzen inguruetan berreskuratu zituzten. Jesus Mari Narvaez eta Esperanza Azkarraga senar-emazteek 40 urtetako etengabe lanaren emaitza da bilduma.

Bitxia da benetan fosil ikusgarri horiek gordetzen dutena. Izan ere, milioika urteetan gordearik egon diren sekretu guztiak ageri-agerian uzten dituzte. Garrantzi zientifikoa handia dute, ez bakarrik hemengo ulertzeko, baita munduan gertatutakoa ulertzeko ere. Pangea superkontinentea apurtzen ari zenean eta ozeanoak hedatzen ari zirela bizi izan ziren fosil horiek, eta horrek duela 110 milioi urteko ingurunea eta hurrengo urteetako nolakoa izan zen hobeto ezagutarazteko balio izan die zientzialariei.

Itsasotik bidaia

Museoa ikusteko beste aukera bat *Nautilus, Flyscheko Fosilak* bisita egitea da. Geoparkeko bisita hone-

tan museoa ikusiko dugu gida baten laguntzaz, eta, ondoren, Mutrikuko portuan itsasontzia hartu eta fosil horiek aurkitu zituzten itsaslabar ikusgarrietara gerturatuko gara. Satturraren hondartzaraino doan tarte pribilegiatu horretan daude Geoparkean dauden flysch zaharrenak; geologian adituek diotenez, ikusteko eta ulertzeko konplexuenak dira. Hurbilagotik mirestu eta gune ezkutatu horretan milioika urteetan harrakaitzek agerian utzi dituzten hainbat sekretu buruzko azalpenak emango dizkigute gida profesionalak eta, aldi berean, argazki ikusgarriak egin eta lurretik ikusteko zaila den paraje eder honetaz gozatzeko aukera paregabea ere edukiko dute bisitariak.



Arrigorri hondartzak bainu eta egonaldi lasai baterako aukera eskaintzen dio erabiltzaileari. Harea fineko 150 metroan galtzeko aukera paregabea.

Urertzeko paradisia

Hondar ahoa esan nahi du Ondarroak, eta antzina bezala, itsaso eta harearekin lotura estu-estua mantentzen duen herria da. Arrigorri da horren testigua.

Itsasoko brisa, urre koloreko hare xehea, paisaia ikusgarriak, urertzeko paseoak eta bakarrik zein familia edo lagunartean egoteko paradisia eskaintzen dizkio bisitariari Ondarroako Arrigorri hondartzak.

Harea fineko 150 metroan galtzeko aukera ematen du Arrigorri, lasai egoteko aukera paregabea, eguzkia hartzeko eta bainu atseginez gozatzeko aukera. Portuko harresiek babesturik, oso hondartza segurua da bainurako ere. Kalitateko ISO ziurtagiria jaso du hainbat urtean, eta 2019an ere horrela izan zen, sostengarritasunaren alde egiten den lanaren adierazgarri.

Hainbat jarduera ere egin daitezke, hala nahi izanez gero, hondartzan bertan zein itsas eremuan: umeek aisialdirako gunea daukate esku-eskura, hondartzako sarreran, eta harean bertan, hondartzako boleibola praktikatzeko eremua. Lehorrean ezeze, uretan ere badago kirola eginez ondo baino hobeto pasatzerik. Kayak eta paddle surf gus-tukoa dutenek Koastak (www.koasta.eus / info@koasta.eus / 601 63 28 32) uda sasoiaren eskaintzen dituen zerbitzuak ditu eskuragarri. Jarduera erraz eta dibertigarriak proposatzen ditu Koastak ibilbide desberdinetan barrena. Alde batetik, orografia, kultura eta Ondarroako kos-

taldea inguratzen duen ondare naturala ezagutzeko aukera, eta beste alde batetik, marinel esentziaz jabetzeko aukera.

Programa bereziak diseinatzeko dituzten jarduera eta zerbitzuak lagun talde, enpresa, ikastetxe edo beste edozein erakunderen premietara egokitzen dituzte.

Hondartza denontzat

Bidaideak elkarrekin garatutako Hondartza Denontzat proiektuaren parte da 2017 urteko udaraz geroztik Arrigorri hondartza. Egitasmoak mugikortasuna murriztuta daukaten pertsonen hondartzaz gozatzeko

ahalbidetzen du, eskubide hori bermatzea, eta horretarako, Arrigorri arreta gunek daude. Behar bezala prestatuturiko begiraleek zenbait euskarri tekniko jartzen dituzte erabiltzaileen eskura, bereziki diseinatuak aretazetan eta uretan erabiltzeko. Eta erabiltzaileei tresna horiek erabiltzen ere irakasten diete, eta behar izanez gero, laguntza eman. Proiektua garraio egokituak zerbitzu berezi batekin osatzen da, uztailan eta abuztuaren egunero eskaintzen dena; hala, aipatu tokietara hel daitezke erabiltzaileak.

Hiri hondartza

Arrigorri hiri hondartza da, itsasora erdi irekita dagoena. Eta herrigunetara dagoenez, asko dira inguruan dauden tabernak eta aisialdiko gunek. Horrez gain, itsas pasealekuan zehar ibilaldi atsegina egin dezakegu, Gipuzkoarantz, Saturrarango hondartzaraino edota Bizkairantz, Berriaturaino doan Errege Bideari jarraituta.

Bi hondartza zeuden 90eko hamarkadara arte: Arrigorri eta Plai Txikixe. Itsasaurre Zubia eraiki zenean desagertu egin zen. Plaiko Zubiaren parean zegoen hondartza txikia

Bainurako gunea balizatuta dago. Olatu gutxiko hondartza da, eta horretaz baliatuta, ekimen bat baino gehiago egiten dira bertan, igeriketa sariketa eta umeen duatloi proba kasurako. Arrigorri Bodyboard Txapelketa ere hartzen du hondartzak otsail hasieran.

Kultur ekimenek ere lekua izan ohi dute, hala nola, kontzertuak – 1978an egin zen lehen rock kontzertua – eta Senegaldarren arteko borroka librearen antolatzen dira bertan.

Ez da Ondarroak izan duen hondartza bakarra. Moilak egin eta gero, Arrigorriko eta Plai Txikixe gelditu ziren. Azken hori, baina, desagertu egin zen 90eko hamarkada erdialdera, Itsasaurre Zubia erakitzeke.

INSTALAZIO eta ZERBITZUAK

- Sorosle postua
- Komunak
- Bizikleta euskarriak [2]
- Umeentzako jolas gunea
- Dutzak
- Oinak garbitzekoak
- Boleibol sarea
- Mugikortasun murriztuko pertsonentzako aparkalekuak [2]
- Hondartzainak eta Salbamendu eta Sorospen Zerbitzua – udako denboraldian –; (hondartzaien ordutegia: 10:00-20:00 / sorosleen ordutegia: 11:00-20:00)
- Aterpetxea
- Zakarrontziak
- Zaintza zerbitzua
- Taberna
- Aldagelak
- Iturriak

JARDUERAK

- Uretako kirolak
- Umeentzako jolasak
- Hondartza boleibola
- Arrantza
- Gimnasia ibilbidea



Koastak uretako jardueraz gozatzeko aukera eskaintzen die erabiltzaileei.



ONDARROAKO UDALA



TURISMO BULEGOA

Erribera 9 (Kofradia Zaharra)

Telefona: 94-683 19 51

E-posta:

turismobulegoa@ondarroa.eus

Udal webgunea: www.ondarroa.eus



ITSASORA IRTEERAK

- Talde txikiekin itsasbidaiaik: Gaztelugatxeko San Juan; Izaro irla; marrazoak; itsastxoriak; zefazeoak...
- Itsas Pintxe poteo despedidak: 10/12 artekoak.
- Urpekaritza teknikoko irakaskuntza kursoak. GALDETU AUKERA EZBERDINAK



OLATU URPEKARITZA ZENTRUA
Benanzio tar nardiz z/g · BERMEO
688 71 99 99 / 629 81 64 65
olatu@olatu.net
www.olatu.net



Gosariak, etxera!



T-KIMUA

Erremedio kalea, 17
94-603 98 02 / 688 88 70 91
BERMEO



tkimuadenda@gmail.com



Ondarearen gordeleku

Urdaibaiko Biosfera Erreserban ere bizi izan ziren antzinako zibilizazioak, eta horren adibide da Foruak gorde duen ondare historiko eta arkitektonikoa.



Foruko herrixka erromatarren aztarnak, nekropolia eta San Kristobal basiliza.

Historian atzera egiteko aukera ematen du Foruak. Ondare kultural eta historikodun herria da, Urdai-baiko Biosfera Erreserba zeharkatzen duen itsasadarren ondoan.

I. mende eta IV. mende arteko arora jauzi egingo du bisitariak herrixka erromatarra bisitatzerakoan. Sasoi hartan, Elexaldeko mui-noaren gainaldea eta hegalek esaltzen zituen 60.000 metro koa-drako azalera zuen herrixka horrek. Azkenengo milurtekoan egindako luberriketa-lanak eta eraikuntza berriek jatorrizko aztarnegiaren erdia desagerrarazi dute, baina herrixka erromatarreko gelak, metalurgiako lantegiak eta biltegiak Tourseko San Martin elizatik paduraraino hedatzen zirela egiaztatu ahal izan dute. Al-dundiak bisita gidatuak antolatzen ditu, eta horietan, San Martin

de Tours elizan dagoen nekropolia bisitatzeko aukera ere badute bisitariak.

Ezkutukoa bistara

Kristo aurreko garaiko elementuak gordetzen dituen San Kristobal eliza da Foruak eskaintzen duen ondarearen beste 'gutizia' bat. Berri-tze lanak egin zituen udalak iaz, eta bere hormen artean ezkutuan zuen ondarea bistaratu dute.

Herriko historiaren leku erreferentea da, eta hango basiliza memoriaren gordeleku bilakatu da. Zaharberritze lanak egiterakoan, antzinako zibilizazioen aztarnak aurkitu zituzten, eta berreskuratu

ostean, ikusgai daude. Piezarik aipagarriena k.a. garaiko hareharrizko hilarria da, 80x35x18 zentimetro dituen. Hondatuta zegoen luzitua kendu ostean aurkitu zuten, elizaren leiho txiki batean.

Pieza bitxi eta berezi horrek eguzkia irudikatzen duen astro-disko bat erakusten du bere aurrealdean. Ertz batean bi gurutze paralelo ditu, eta goiko erdialdean berdinak diren beste birekin gurutzatzen dira. «Harri sakratu» legez definitu dutena bertan mantendu zuten XVI. mendean kristauek ermita eraiki zutenean ere. Historialarien iritziz, Aixerrotoako nekropolitik ekarritako pieza izan daiteke.



**FORUKO
UDALA**

Helbidea: Elezalde auzoa, 1.

Telefonoa: 94-625 51 16.

Posta elektronikoa:

idezkaritza.forua@bizkaia.org

Webgunea: www.forua.net



EKOBIIDEAK

Ekobideak Bizkaiko kooperatiba txikia da, Geoturismoan eta Ingurumen Hezkuntzan diharduena. Geologo adituak gara ondare geologikoaren gidaritzan eta interpretazioan; Urdabaiko biosfera erreserbak eta euskal kostaldeko geoparkeak ziurtatuta. Busturialdea-Urdabaian baso bainuen helmuga turistikorako ziurtagiri gidak izateko prestatuta gaude ere.

Geoturismoa eta
Ingurumen Hezkuntza..
haitzak eta zeozer gehiago!



Urdabai

Urdabaiko Biosfera Erreserban paisaia bikainak uzten dizkiguten garrantzia handiko hainbat elementu geologiko ditugu, eta hauek osatzen duten herrien historiaz hitz egiten digute.

Oinez edo itsasontziz, animatuko zara horiek aurkitzera? Oka ibaiaren estuarioaren ezkerretik eskuineraino, Gernikatik igaroz, Euskal Herriko geodibertsitate bereizgarrienaz betetako barnealdea eta kostaldea dugu: flysch-ak, diapiroak, dunak, harrobiak, fosilak eta arroak. Zeuk erabaki!

Baso bainuak

Jarduera hau esperientzia zentzuzkoa da. Iraupen laburreko ibilaldiak lasaia egitean datza naturan murgilduta. Oraintxe bertan, aktibitate hauek Arratzun, Gernikan eta Muruetan egiten ditugu. Bisitan zehar, ingurune elementu naturalak behatzen dira; isiltasuna eta soinu naturalak gozatu ahal izango dituzu. Basoen eraginak eragin zuzena du pertsonen ongizatean. Begiratu nahi al duzu?


Kontaktua:

666 85 77 61
688 62 72 42

ekobideak@gmail.com

www.ekobideak.com

Zitek Leioa
5 moduloa
Errektoretza
(behealdean)
Leioako campusa
EHU



Muruetako altxor ezkutua

'Dinamita' ezizenez ezagutzen den portutxoa 60ko hamarkadara arte erabili zen. Urdaibaiko itsasadarreko portu bakarra izan da Muruetakoa.



Itsasadarrean dagoen *Dinamita* kaia alde batera eta bestera begiratuta.

Natura ezagutzeko eta behatzeko aukera aparta emateaz gain, Urdaibaiko itsasadarra Busturialdeak eduki zuen industria jardunaren erakusgai ere bada. Muruetan geldituena eginda ikusi daiteke, esaterako, antzinako teila fabrika izan zena. Handik gertu, berriaz, bidea jarraituta, Teileria bezain ez ezaguna den kokaleku txiki eta miragarria aurkitu daiteke, Muruetako portua izan zena.

Ez da erraza iristea, trenean joanda ere ez da ondo ikusten, baina herriko ontziolen ondoan dago herriarrekin *Dinamita* ezizenez ezagutzen duten portutxoa. 1902. urtean jarri zuten martxan, eta Urdaibaiko itsasadarren barruan zegoen portu bakarra zen Muruetakoa. Ezizenaren jatorria instalazioak zeukan xedetik dator. Izan ere, lehergaiak, batez ere dinamita gabarra txikietan kargatzeko asmoz sortu zen.

Hasieran portua egurrezkoa izan zen. 1946. urtean, hala eta guztiz ere, lan karga handituz zihoan, eta instalazioak handitu zituzten.

Hala, hormigoizko bi ontziraleku, biltzergiratzeko eraikina, estalpea eta portuarentzako horma bat eraiki zituzten.

Galdakaotik ekartzen zituzten lehergaiak, gero gabarra txikietan kargatu eta Urdaibaiko itsasadarretik zehar, Arketara eramateko. Han itsasontzietara igotzen zituzten, Santander, Sevilla edo Bartzelonara itsasoz garraiatzeko.

Errepideetako azpiegitura modernoekin batera lehergaiak kamioiz garraiatzen hasi ondoren, portuak garrantzia galdu zuen; 60ko hamarkadara arte iraun zuen bizirik.

Berreskuratzekeo nahia

Herriko industria ondarea da, dagoeneko berreskuratuta dagoen Teileriaz batera. Muruetarrak

identifikatuta sentitzen dira portu txiki horrekin, nahiz eta herrian balioan jarri gabe duten lekua izan. Gunea berreskuratzekeo proiektua badaukate, bai ingurua bera berreskuratzekeo ere.

Proiektua bai, baina oraindik *Dinamita* portu txikia bereganatu behar du udalak, eta horretan dabil-tza. Kosta Mugapeagaz hitz eginda daukate itsaso eta lehorren arteko jabari publikoa udalaren esku uzteko ere. Ingurua txukundu, ingurumena babestu eta *Dinamita* ren esentzia eta industria ondarea balioan jarrita, aisialdirako gune batean bihurtzea dute asmo, berea izan ez dena kenduta, lehengoratu-ta eta berreskuratuta. Modu horretan zer izan zen eta zertarako era-biltzen zen jakingo dute ingurura bertaraten direnek.



**MURUETAKO
UDALA**

Helbidea: Kanpantxua, 3
Telefona: 94-625 24 51
Faxa: 94-625 65 28
Posta elektronikoa:
udala.murueta@bizkaia.org
Webgunea: www.murueta.es

EUSKAL SOUVENIRS



Andra Maria kalea, z/g
Gernika-Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30

www.euskalsouvenirs.com

*Euskal Herriko produktuak,
oroigarriak eta opariak.
Gure lurraldearekin
inoiz ahaztu ez zaitezten!*



@euskalsouvenirs



auka

bidaiak

Fray Martín de Murua 29
48300 Gernika
auka@auka.eu

CIE: 2260

tlf.: 94 625 74 14
688 686 345





Bere gaztelua iceberg turistiko baten punta da



Pausoz pauso, kalitatezko landa-turismoak bere bidea egiten du natura bikaineko udalerrri honetan: paduran murgilduta eta artadiaren mantu berdearen azpian paseo eta bidezidor zoragarriak sortzen dira, ur gezaren eta gaztaren indarrari lotutako historia gordetzen du, eta deskonexio atsegina egiten duten ostatuak. Horrelakoa da Gautegiz Arteaga. Webgune turistiko berria, www.turismogautegizarteaga.eus, udalerriko baliabideak eta zerbitzuak ezagutzeko gonbidapena da.

ENERGIA NATURALA: Padura bere esentziaren parte da, herri bezala izan duen bilakaeraren parte. Bird Centera, hegaztien behatokiak eta espazio pribilegiatu honen kontserbazioa dira oraina. Gautegiz Arteagan paseatzea hotel-jatetxe han-



di bihurtutako ipuin-gaztelu batekin topo egitea da, bai eta Urdaibai-ko itsasadarraren indarrarekin edo Ereñozar menditik alai jaisten diren ibaietako urarekin biratzen duten gurrpil-errotekin ere.

MENDI-IBILIAK PARADISUAN. Gautegiz Arteagako harmonia naturalak eta bere historiaren aztarnen izaerak bere sei ibilbide geolokalizatuetako ibilbideak gorteatzen dituz-

te, bere zailtasunaren arabera seinalizatutako eta sailkatutako. Ibilbide eder horiek jarraipena ematen diete inguruko herrietatik iristen diren eskualde-bideei.

BARIETATEAN GUSTUA BADA-GO... Gautegiz Arteagaren xarma ostatuaren aniztasunean eta eskaintza gastronomikoan ere islatzen da. Relais & Chateaux batean, landa-chic etxe eder eta eskusibito batean, apartamentu turistikoetan, tradizio handiko ondarea duten landetxeetan eta autokarabanan ere lo egitea aukeratu ahal izango duzu. Eta zapo-ari edo gustuari buruz ari garenean, bertako jatetxeetan dastatzeko edo ortutik zuzenean erosita etxera eramateko, tokiko sasoiko produktuen eskaintza aparta dago.



GAUTEGIZ ARTEAGAKO UDALA

Helbidea: Herriko Enparantza, 1
Telefonoa: 94-627 52 27 **Faxa:** 94-625 29 53
Posta elektronikoa: udala@gautegizarteaga.eus
Webgunea: www.gautegizarteaga.eus
Turismo ataria: www.turismogautegizarteaga.eus

BASONDO BABESLEKUA

BISITA MOTAK

Norbanakoak: Parkeko sarreran azken gertakizunen berri emango dizuegu [jaiotzak, espezie berriak...] Ibilbidean zehar, animalia bakoitzari buruzko panel informatiboak ditugu.

Taldeak: Aldez aurretik antolatutako bisitak dira egokienak [euskaraz eta gaztelaniaz]. Ibilbide osoan zehar, animalien inguruko ezaugarri oro azaltzen joango da gidaria. Hark zenbait animalia ukitzeko aukera ematen du.

Ikasleak: Naturari buruzko azalpenak ematen dira, taldearen adinari egokituta [haur zein nerabeak]. Animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen da. Bisitak goizekoak edo egun osokoak izan daitezke. Egun osokoa bada, arratsaldean landa praktikak egiten dira.

ORDUTEGIAK

Neguko ordutegia (irailaren 1etik ekainaren 30era):

Astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara [15:00etan irteteko].
Larunbatak, igandeak eta jaiegunak: 11:00-17:00 [18:00etan irteteko].

Udako ordutegia (uztailaren 1etik abuztuaren 31ra):

Egun guztietan 11:00etatik 18:00etara [19:00etan irteteko].

PREZIOAK

Norbanakoak:

Helduak 9 euro
eta umeak 5 euro.

Taldeak:

Bisita gidatuatarako erreserba egin behar da beti. Taldea 20 pertsona baino gehiagokoa bada, gidaria dohainik izango da, eta gutxiagokoa bada, taldeko 35 euro ordaindu beharko dira.



Animalia gehienek ia sendaezinak dituzten kalteak dituzte.

Mehatxatutako basofaunaren babesleku

Berreskuratze Zentroetatik etorritako animaliak daude Basondon. Animaliez eta naturaz gozatzeko eta ikasteko aukera eskaintzen du Busturialdeko naturaparke garrantzitsu honek.

Basurdeak, orkatzak, oreinak, azeriak, basakatuak... Inguruko animalia ezagunak zein gaur egun Euskal Herrian desagertuta daudenak biltzen dira Basondon. Bisitan hurbiletik behatu ahal izango dituzue antzina gure basoetako biztanleak ziren beste espezie batzuk ere: otsoa, katamotzak edo bisonteak.

Ez da zoologiko bat, Basafaunaren babesleku bat baizik. Animalia

gehienak Berreskuratze Zentroetatik etorritakoak dira. Ia denek sendaezinak diren kalte batzuk dituzte, eta, beraz, ezinezkoa da naturara berriro birsartzea.

Horrez guztiaz gain, Basondon animalien zainketa eta sentsibilizazio zein ingurumen hezkuntzarekin lotutako lanak ere egiten dituzte.

Animaliez eta naturaz gozatzeko leku aproposa da faunaren aterpe hau. Bisitariei animaliekin kontaktu zuzena edukitzea ahalbidetzen diete, eta esaterako, bisitetan taldekideen adinaren arabera naturari buruzko azalpenak ematen dituzte.



Helbidea: Basondo auzoa, 6 (Kortezubi, Bizkaia).

Telefona: 94-625 44 36

Posta elektronikoa: info@basondo.com

Webgunea: www.basondo.com

Ederra izaten jarrai dadin

Ingurumena zaintzeko neurrien alde agertu da Ibarrangelu, ehunka bisitari erakartzen dituela aintzat hartuta.

Hondartzak tentagarri dira lasaitasunaz gozatu nahi dutenentzat, eta haien artean ezagunenetakoak Ibarrangelun daude. Hurren aurrean, bertako natur baliabideak zaintzeko deia egin du bertoko udalak.

Ibarrangeluko hondartzak Urdaibai Biosfera erreserban daude. Gorde beharreko altxor dira, hortaz. Hori oinarri hartuta, bistariari begirune eskatu diote, eta zer egin behar den gogorarazi: alde bate-tik, hondartzetan garbi jokatu, eta, bestetik, garraio publikoa erabili.

Garbi jokatzeko aldarrikapenaren baitan, aurtengo udan, Laga eta Laidara doazenei ez erretzea eskatzuko die Eusko Jaurlaritzak, proiektu pilotu baten baitan, beste bost hondartzarekin batera, eta mugikortasunari dagokionez, Ibarrangeluko Udalak aldarrikatu du herriko hondartzok Mugikortasun Plan argia behar dutela, turismo estrategiek eta ekonomia jasangarriarekin bateragarria. Ildo horretatik, Laga eta Laida hondartzak oinezkoentzako bide berdeagaz lotu berri dituzte. Izan ere, hori da inguruoz gozatzeko erarik onena, naturarekin kontaktu zuzenean, ahal den guztietan oinez ibilita eta errespetuz jokotuta.



Laidako hondartza.

Zer ikusi Ibarrangelun?

San Andres ermita.

Kanpoalde xumeak altxorra gorde du barruan, ganga polikromatu ikusgarria. Ez dago beste inon material horrekin tamaina hain handian eraikitakorik.

Urdaibairen bihotzean.

Laga eta Laida Bizkaiko hondartzarik ederrenetakoak dira. Beste bi ere badaude: Ibina eta Antzorape. Bestalde, Atxarreko San Pedrotik, Urdaibaiko itsasadarren ikuspegiak goza daiteke.



«Gure kostaldea babestea eta Urdaibain lan egitea eta bizitzea bateagarriak izan behar dira etorkizunera begira. Hau da, inguruok babestu egin behar dira. Urdaibaiko herri txikietan, bereziki, behar-beharrezkoa da», nabarmendu du Jesus Mari Ziluaga alkateak.

Arketako kanpina

Bide beretik, Ibarrangeluk jasangarritasunaren aldeko apustua eginda dauka Arketa udal kanpinean ere, Biosfera Erreserbaren bihotzean, Laga-Laida errepidean. Zentzu horretan, bertara joateko zerbitzu publikoa erabiltzea gomendatzen du. Gainera, urtetik urtera, urratsak ematen ari dira inklusibitatearen alde.



**IBARRANGELUKO
UDALA**

Helbidea: Elexalde, 1

Telefona: 94-627 60 04

Faxa: 94-627 62 95

Posta elektronikoa:

udala.ibarrangelu@bizkaia.org

Webgunea: www.ibarrangelu.eus



ELANTXOBEKO ZALDIXEK

Esperientzia berezi bat zaldiekin

Zaldiek beraien habitatean duten portaera, beraien gorputz-espresioa eta taldearen portaera behatuta, elkar eragingo dugu eta geure baitan murgilduko gara.



Familientzat, taldeentzat eta edozeinentzat gomendatutako esperientzia, zaldiekin kontaktaren bitartez, gure portaeran hausnarketa egiteko. Gure baitan sartzen lagunduko digute.

COACHING ZALDIEKIN

Zaldiekin egiten den Coaching zerbitzua gure egoeratik nahi dugun egoerara igarotzeko bide-laguntza da. Autoestimua, lidergoa, taldearekiko konexioa, erabakiak hartzeko gaitasuna eta abar landu daitezke.

Lurretik egindako jardueren bitartez, zaldi gainean jartzeko beharrik gabe eta galdera metaforikoak erabiliz. Zaldiek behar ditugun aldaketez kontziente izaten lagunduko digute, esaten dugunaren eta egiten dugunaren arteko koherentzia landuz.



ELANTXOBEKO ZALDIXEK

Joseba Muñiz

Telefonoa: 639 42 52 83

Webgunea: <https://elantxobeko-zaldiek.negocio.site>

Facebook: @ElantxobekoZaldiek

Ogoñope

SURF IKASTAROAK

LAGAKO HONDARTZA



Aste bateko ikastaroa, bost egun ---> 100€

Egun bateko ikastaroa ---> 25€

ogonopesurfeskola@gmail.com

664579954



SARRERA DOAN
ENTRADA GRATUITA

Urdaibai

ORAIN 2.300 URTE
HACE 2.300 AÑOS

AROLAKO OPIDUM-AREN INTERPRETATZIO ZENTRUA

arrolagune

ZABALIK ABIERTO

uztaila / julio

4 IGANDEA DCMINGO

11 IGANDEA DCMINGO

17 LARUNBATA SÁBADO

24 LARUNBATA SÁBADO

abuztua / agosto

1 IGANDEA DCMINGO

7 LARUNBATA SÁBADO

15 IGANDEA DOMINGO

21 LARUNBATA SÁBADO

29 IGANDEA DOMINGO

ORDUTEGIA/ HORARIO

10:00 - 14:00

ARRATZU

Loiola Auzoa 4

Tel.: 634 243 762 / 688 856 689

arrolagune@visiturdaibai.com

www.visiturdaibai.com

Visit
Urdaibai

A
ARATZU

Bizkaia
BIZKAIA
ARATZU





Emari emankorra

Errekak, itsasoak eta landa eremuek ondoetorria ematen diete bisitariei Ea udalerrian. Urak bezain emari emankorra, ederra eta aberatsa biltzen du.

Errekak banatzen dituen herriguneko etxe multzoak dira Eako postala. Milaka argazkiren lekuko dira horiek. Bisitarien arreta erakartzen dute hondartzak eta portu txikiak, eta badaude ezkutuko txoko bereziak ere: Natxituko eta Eako lapatzak; Bedaronako Ogella, marearteko zabalgunea... Paradisu eta oasi txikia bezain emankorra da udalerria. Landa eta itsas ekosistema aberatsa biltzen da Natxituan, Ean eta Bedaronan. Ikusteko, usaintzeko eta sentitzeko hamaika leku topatu ditu bisitariak.

Udalerria barru-barrutik ezagutzeko plan proposa izan daiteke ibilbideren bat egitea. Horietako bat da *Ura jarraituz* edo uraren ibilbidea bezala ezagutzen den 7 kilometroko ibilbidea. Garai batean burdinolek tokiko ekonomian eduki zuten garrantziaren adibide da. Bi ordu eta erdian egiteko txangoan Urtubiaga burdinolatik igarotzen da. Bizkaian egokien kon-

tserbatu denetarikoa da, eta ola inguruan bisitarien arreta erakartzen duen urtegi arkuduna dago.

Umeekin joanez gero, herrigunetik kilometro bateko paseotxoak emanez ailegatu daiteke bertara.

1725. urtean eraiki zuten Urtubiaga burdinola, eta 1830eko hamarkadara arte martxan egon zen. Aurretik Erdi Aroko burdinola bat egon zen bertan, eta errota 1960ko hamarkadarte erabili zuten. Eraikinari buruzko informazio zabal jasota dago bertako paneletan.



Busturialdea eta Lea-Artibai bisitatzen duten askoren hautua izan ohi da Ean geldialdia egitea. Egun pasa zein egonaldi luzeagoa egiteko xarma berezia daukan horietakoa da, eta eza gutzen duenak errepi-
katu egiten du.

OSTALARITZA GIDA

Aritza taberna:

Aritza kalea, 15 [94-627 50 29]

Arrantzale:

Kale Nagusia, 19 [94 627 51 59]

Eskoikiz:

Goiko bidea, 1 [94 627 52 62]

Eskolondo:

Kaibidea, 2 [94-697 03 62]

Herriko Taberna:

Bedarona auzoa
[94-653 31 59 · 671 28 61 04]

Itsasondo:

Jesus kalea, 21 [94 627 50 48]

Txangurru:

Donibane enparantza, z/g
[94 627 50 25]

Andutza (landa etxea):

Telefonoak:
94-465 10 36 / 635 73 35 69
Helbide elektronikoa:
royoajuria75@gmail.com

Ea-Astei (landa etxea):

Telefonoa: 94 627 65 11
Helbide elektronikoa:
info@astei.net

Ermintxo (hotela eta jatetxea):

Natxitua auzoa
Telefonoa: 94-627 77 00
Helbide elektronikoa:
ermintxo@euskalnet.net

Bekale (pentsioa):

Barria kalea, 2
Telefonoak:
94-627 59 02 / 650 78 70 33
Helbide elektronikoa:
bekalie@gmail.com



**EAKO
UDALA**

Helbidea: Donibane enparantza, 2

Telefonoa: 94-627 52 27

Faxa: 94-627 51 99

Posta elektronikoa: udala.ea@bizkaia.org

Webgunea: www.eakoudala.eus
www.eaturismo.eus



Ezkerretik eskumara, Herriko taberna Loiola auzoan, Arrolagune eta Olesko taberna.

Arratzu plan ona da beti

Arratzu landa-gune ezin hobea da. Aukera apropos-aproposa da, aisialdirako elementu guztiak biltzen baititu.

Bide guztiek Arratzura daramate aisialdi osasungarria, tokiko gastronomia eta historia eta kultura biltzen badira paisaia oparo batean. Habitat natural ukaezina, aberastasun historikoa eta ondare harrigarria, Km0 gastronomia eta ondo zaindutako guneak direla eta, Arratzu plan ona da beti.

Plan on baterako gakoak

Gernika-Lumotik oinez edo bizikletaz iristen bazara, Olesko auzotik landa giro lasaian murgilduko zara, eta bertan baserriak, ortuak, aberlarreak eta natura aurkitu dituzu nonahi. Bere bidegorri sareak auzoak lotzen ditu paisaia bukoliko baten bidez. Joandakoan edo itzulitako-

an, geldialdi bat egin dezakezu bidean, eta indarrak berreskuratu bertako tabernetan, landa-giroko xarma duten lokal xume eta atseginetan.

Horien proposamen gastronomikoek ez dizute huts egingo. Arratzun, etxean bezala jan dezakezu, eta sasoiko produktuak probatu, ortutik platerera. Eskatu zeure mahaia Olesko Tabernan, hain zuzen ere Gernika-Lumotik abiatzen den ibilbidearen hasieran, edo Herriko Tabernan, Loiola erdiguneko auzora iristen zarenean, herriko plazan.

Burdin Arora bidaia

Plazatik mugitu gabe, eskola zaharren eraikinean, iraganera bidaia duzu zain, Burdin Arora, duela 2.300 urte baino gehiago izandako Urdaibaiko bizimodu indigenara bidaia, hain zuzen ere. Sar zaitez Arro-

lagunera, Arrolako Oppidumaren Interpretazio Zentrora, eta bertako ilustrazio ederrez gozatu, urteetako ikerketa arkeologiko zorrotzaren emaitza.

Haiek jarraituz ezagutuko duzu Arrolako herrixka gotortuaren historia: antzinako-bizimoduak, hileta-erritoak eta historiaurrearen amaieran Arrola mendian egon zen herrixka gotortuaren defentsarako gaitasun sofistikatuak. Burdin Aroko benetako neurriko etxola baten erreproduzioak osatzen du erakusketa. Arrolagunek espazio txiki batean istorio benetan handi bat kontatzen du. Igandero dago bisitarien zain, 10:00etatik 14:00etara. Sarrera doakoa da. Adi egon, bisita gidatu bereziak ere egon ohi dira eta. Informazioa: 634 24 37 62, www.turismoarratzu.eus



ARRATZUKO UDALA

Helbidea: Loiola auzoa, 2

Telefona: 94-625 68 84

Posta elektronikoa:

udala.arratzu@bizkaia.org

Webgunea: www.arratzu.eus

www.turismoarratzu.eus



Ilunzar tontorra.

Begiratokien herria

Naturaz inguratutako herri txikia da Nabarniz, xarmaz beteriko txoko eta ibilbideak eskaintzen dituena. Arrola eta Ilunzar gailurretara joateko bideak, esaterako, kultur ondarez beteta daude.

Kostako begiratokien herria da Nabarniz. Itsasoraren mailatik 360 metrora, mendialdean dagoen herri lasai bezain naturala da. Ingurune horretan, mendi tontorretara joateko hainbat eta hainbat ibilbide aurki daitezke, Ilunzarreko eta Arrolako ibilbideak, esaterako.

Ingurumena herriko ondare natural eta kulturalaren funtsezko osagarria dela oinarri hartuta, bi ibilbide horietako interes guñeak zehaztu ditu Nabarnizko Udalak. Izan ere, herriko gailurrek balio berezia dute paisaia eszenikorako.

Ilunzarreko ibilbidean material geologiko desberdinak aurki daitezke, Jurasikotik Kretazeorainokoak. Ibilbidea Elexalden hasten da, eta Argarairantz joateko bidea hartu behar da. Bidean zehar Sakone Iturburua zeharkatu eta Potro-llokorta eta Ilunzar mendien arte-

ko kareharritzko plataformara igo beharko da. Behin igota, Kretazeo garaiko aztarnak ikus daitezke. Kantera zeharkatu eta hostozabal basoa ezkerretara utzita, tontorrean heldzerakoan, kareharri zuriak ikusi ahalko dira. Bidean kobazulo eta leizeak ere aurki daitezke, horien artean, Ineritzeko leizea. Tontorrean, erromatarren kanpaleku militar bateko harresiz inguratutako barrutiaren hondarrak aurki daitezke.

Arrolako ibilbidearen baliorik garrantzitsuena gailurrean dago, Burdin Aroko herri gotortuaren hondakinak aurkitu baitira. 532 metrora

Non jan Nabarnizen

Nabarniz Jatetxea.

- Helbidea: Elexalde auzoa, 42.
- Telefonoa: 94-625 05 58

Herriko Taberna Jatetxea.

Elexalde auzoa, 5.
94-617 86 82

Aboitz Taberna.

Elexalde, 12.
94-625 50 28

dago, eta Burdin Aroko enklabe estrategikoa izan zen. Arrolako kastroa herri garrantzitsua izan zen, 400 biztanle inguru eta 8 hektarea-ko barne azalera zituelako. K.a. IV. mendetik K.o. I. mendera arte bertan bizi izan zirela uste da.

Hurrengo urteetan, ibilbideetan panel informatiboak jartzea aurreikusi dute.



**NABARNIZKO
UDALA**

Helbidea: Elexalde auzoa, 14
Telefonoa: 94-625 50 77
Posta elektronikoa: u
udala.nabarniz@bizkaia.org
Webgunea: www.nabarniz.eus



urdaibai

Turismo aktiboa eta abentura



Coasteering



Kanoa/Kayak

www.urdaibai.com
info@urdaibai.com



94 627 66 61 / 688 635 190



SUP - Stand Up Paddle